

Denok gara

e u s k a l d u n n o n
Egunkaria

pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 64. alea 2003ko otsailaren 28a





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Arrano Taberna

Etxaburueta kalea / Telefonoa 943 75 24 09

"Herri honetan jende jatorra dago"

Zeintzuk egitten dozue lana hemen?

Loiola Maderak eta Eloy Galánek.

Noiz hartu zenduten tabernia?

Ba Aste Santu honetan 2 urte izango dira hemen hasi ginanala. Zelan akordau jatzuen Soraluzeko Arranua hartzia? Bueno, lehenago be bixok ibilitta genden barran lanian. Tabernian kargu egitteko batenbat bihar zebela komentau zozkuen eta animau egin ginan.



Herrixan zer giro daguala uste dozue?

Herrixan ez dao giro haundirik. Txikiteo orduan zeozer gehitxua, baina gabian asko jeisten da. Udaletxiak ekintza gehixao egin biharko littukela uste dogu, hola herriko jendia bertan geldittu eta kanpokuak be etortzeko.

Jendiak daukan harrerriakin gustora al zarete?

Bai, herri honetan jende jatorra dago.

Amaitzeko, etorkizunera begira, ze asmo daukazue?

Hola jarraitzia pentzatzen dogu, oingoz, behintzat, ez daukagu ezer aldatzeko asmorik.



Egunkaria aurrera! Bai Euskarari !

(2003ko otsailaren 22an Donostian irakurritakoa)

XABIER MENDIGUREN (EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUKO ZUZENDARIA)

Milaka eta milaka lagun elkartu gara berriro ere Euskarari bai esateko, Euskaldunon Egunkariari bai esateko.

Kontseiluak ez du inolako zalantzarik Euskaldunon Egunkariak aurrera egingo duela. Egoera zailenetan ere euskal gizarte bere hizkuntzaren aldeko ekimenak abian jarri eta garatzeko gai izan da. Horregatik, orain ere Egunkaria aurrera aterako da, beste proiektu asko bezala euskal gizarte osoaren sostengua eta lanari esker.

Ikastolak, helduok euskalduntzeko mugimendua, euskal kultura sustatzeko erakunde desberdinak, euskararen normalizazioaren aldeko mugimendua eta hainbat erakunde milaka eta milaka euskaltzalek bultzatu eta gartu dituzte.

Horregatik, Acebes ministroari esan behar diogu ez dugula bere laguntzarik behar horretarako. Egoera hau hain larria eta gogorra izango ez balitz barre egingo genuke bere hitzak entzunda. Euskarazko komunikabideak itxiz, euskararen alde diharduten erakundeen lana oztopatuz, edo gaixo dagoen pertsona bat, Pello Zubiria, at-

xilotuz eta inkomunikatuz ez diozue inolako laguntzarik ematen ez euskarari, ez gizarte harremani, ez herritarren elkarbizitzari. Euskarari egin diezaiokezuen mesederik handiena hizkuntza eskubideak aitortzea da eta euskara eta euskal kulturari inolako trabarik ez jartzea.

Gaur hemen bildu garenok euskaltzaleak izateaz gain, euskal herritar ere bagara. Eta aitortzen dugu herri honek eskubidea duela bere komunikabideak sortzeko, bere hizkuntza garatzeko eta beste edozein herri bezala bizitzeko.

Mobilizazio honetan zaudeten alderdi politikoei dei zuzena egin nahi dizuegu euskararen defentsan eta normalizazio ahaleginetan eragile aktibo izan zaitezten. Egoerak eskatzen du akordio politiko zabala egitea, euskararen normalizazioa garatzeko akordio hori ezinbestekoa baita. Euskalgintzatik eskaera bat egiten dizuegu: ausardiaz jokatzeko, gure hizkuntza eta gure herri izaera aurrera ateratzen laguntzeko iritzi politiko desberdin guztien gainerik. Hori izango baita

gure etorkizun baketsurako ekarpen eta bermerik hoberenetakoa.

Oraingo honetan Euskaldunon Egunkaria, Ikastolak, Jakin, Argia, Plazagunea eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa eraso dituzte; lehen, AEK, Zabaltzen, Euskal Herrian Euskaraz, Abokatu Euskaldunak, IKA eta beste hainbat erakundek pairatu dute eraso hori.

Ezin gara zain gelditu ea noiz eta nondik etorriko den hurrengo makilakada. Ez dute hainbeste urtetako lana zapuztuko. Ez daukagu inolako zalantzarik eta herritarrok euskararen normalizazioari eutsiko diogu. Gure eskubidea delako, gure hizkuntza eskubideekin inork jolasterik onartzen ez dugulako.

Bukatzeko, azken eskaera bat: oraingo txalo hauek haizeak eraman ditzala gaur hemendik urrun atxiloturik dauden lagunengana: Iñaki Uribe, Martxelo Otamendi, Juan Mari Torrealdai, Luis Goia, Fermin Lazkano, Inma Gomila, Xabier Alegria, Xabier Oleaga, Txema Auzmendi eta Pello Zubiria.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorraluze.
Telefona 943 75 13 04
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotia: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



**Soraluzetik Euskalgintzak antolatutako
2 autobus joan ziren Donostiara.
Egunkaria eskutan euskararen alde.**

Zorion agurrak



Maialen Alberdi
Otsailaren 21a
Zorionak potxola!
Gehixau jan bihar da
neska haundixa eitte-
ko!
Etxekuak eta lagun
guztien partez!



Aitana Cortes
Matxoaren 5a
Segi holaxe txintxua
izaten, "kukintxo"!
Zorionak eta muxu
haundi bat zure
lagun eta etxekuen
partez.



Julene Zabala
Otsailaren 5a
Zorionak potxola
zure urtebetetzian,
ondo ondo pasaizu
zure egunian.
Sendi osuaren par-
tezt.



Beatriz Deza
Otsailaren 22a
Zorionak prezioxa!
"15 años tine mi
amoor.."
Sendi osuaren par-
tezt.



Josune Saban
Otsailaren 24a
Zorionak!
Asko maitte zaittugu
Sendi osuaren par-
tezt.



Oihana Vila
Martxoaren 9a
Zorionak!
Gurasuen partez.

Yaitza Fulgencio
Otsailaren 19a
Zorionak pitufatxo!
Gurasuen partez.

Adur Odriozola
Martxoaren 19a
Zorionak pitufotxo!
Gurasuen partez.

Rosi Dueñas
Otsailaren 27a
Urte mordo bat baina
oraindik gaztetxoak,
azkenean harrapatu
nauzu egun gutxita-
rako.
Zorionak!
Etxekuak eta zuk
dakizun beste baten
partez.

hildakuak

Justino Alberdi

jaiotakoak

Olatz Alberdi Artolazabal

Marina Gil Azcona

Gutunak

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun euskara elkarte eta herri aldizkariak honakoa adierazi nahi dugu:

*Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.
*Dei egin nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatuzera.

*Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko eutsiko diogu.

*Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita gure hizkuntzaren normalizaziorako. Euskaldunon Egunkariako langileak euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herritar guztien laguntza beharko dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak eguner eta Euskal Herri osoan ahotsa izan dezan.

-Irutxulo (Donostia)
-Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte (Donostia)
-Hitzaro (Ordizia)
-Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Aiurri Aldizkaria (Andoain)
-Eta Kitto! Euskara Elkarte eta Astekaria (Eibar)
-Lagatzu Euskara Elkarte (Zamudio)
-Aikor Aldizkaria (Txorierri)
-Anboto Durangaldeko Astekaria (Durangaldea)
-Arrikikili Larrabetzuko Euskara Elkarte (Larrabetzu)
-Tipi-Ttapa aldizkari eta telebistako langileak (Bera)
-Irun Iruten Euskara Elkarte (Irun)

-Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte eta Aldizkaria (Errenteria-Orereta)
-Berton aldizkaria (Mahatserría)
-Berbaizu Euskara Elkarte eta Prest aldizkaria (Deustu)
-Pil- Pilean Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Soraluze)
-Euskal Birusa Euskara Elkarte eta Drogeteniturrí Aldizkaria (Ermua)
-Txatxilipurdi Euskara Elkarte (Arrasate)
-Maxixatzen Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Azkoitia)
-Elgoibarko Izarra Euskara Elkarte eta Barren Astekaria (Elgoibar)
-Karkara Euskara Elkarte (Orío)
-Txaparro Kultur Elkarte eta Txaparro aldizkaria (Zarautz)
-Goierriarrak Kultur Elkarte (Ordizia)
-Asapala Kultur Elkarte (Mahatserría)
-Dobera Euskara Elkarte (Hernani)
-Jardun Euskara Elkarte (Bergara)
-Goiena Komunikazio Zerbitzuak (Debagoiena)
-Karrikaluze Euskara Elkarte (Atarrabia)
-Orratx! Kultur Elkarte (Lezo)
-UK Uribe Kostako Aldizkaria (Getxo)
-Bizarra Lepoan Euskara Elkarte (Getxo)
-Euskarabila Euskara Elkarte (Basauri)
-Loramendi Euskara elkarte (Aretxabaleta)
-Danbolin Zulo elkarte (Zestoa)
-Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkarte (Arrasate)
-Berbaro Euskara Elkarte (Durango)
-Uztartzen Euskara Elkarte eta Uztartria Aldizkaria (Azpeitia)

Topagunea**Euskara Elkarten Federazioa**

Merkatu Txikia



LAN ESKAINTZAK

***Elbarritu fisikoentzako beka**
.Mapfre Medicina Fundazioak elbarritu fisikoentzako Lanbide Heziketako beka eskaini ditu: Autoedikzioa, auto-mozioa, industria kalitatea, aluminiozko arotzeria, kontabilitatea, elektronika, lorazaintza... Epea: apirilaren 15a. (943 74 14 61)

*Jatetxe batean asteburueta lan egiteko **zerbitzaria** behar da.686067297

*Gozotegi baterako **zerbitzaria** behar da. 606 51 62 47

*Debagoiena: **Aisialdirako** denbora eta lanerako gogoia baduzu, deitu (9.00etatik 13.00era) 943 21 42 28 tlfonora

*Taberna-jatetxe batean **zerbitzaria** behar da. Domeketa jai. 943 76 15 59

BESTELAKOAK

*Bigarren eskuko **josteko makina** erosiko nuke. Merke. 943 76 94 40

***Taberna ixten dela eta**, mahaiak aulkiak, hozkailua eta izotza egiteko makina salgai. (94374 01 37)

***Sei ate salgai**. Sukalde eta salarako kristalezko 2 ate, logela eta komunera-ko 4. Marko eta guzti. 696 24 04 06 (20.00-22.00)

***Umeak zaintzeko** irrati transmisorea erosiko nuke. 943 79 40 44

*Bigarren eskuko **bizikleta estatikoa** erosiko nuke. 699 84 35 80

*Umearendako **sehaska** erosiko nuke. 943 79 40 44

*Zeharkako **txirula bat** erosiko nuke 94379 76 69

Okerrak zuzentzen

Aurreko alean, Sutondoaren Epelean Nikanor Iñurrietari egindako elkarrizketan, oker larri bat egin genuen. Elkarrizketaren azken lerroetan, Frente Popularrak gizon bat kalez-kalez kale erabili zuela genioen baina gizona bera zen Frente Popularrekoa eta halaxe esana zigun Nikanorrek garbi asko.

BENAN RODRIGUEZ

2.000 - 2 - 28



Atzo nire konpainian
gaur nire oroimenean
betirako nire bihotzean !

Zer irizten dotsazu?

Martxoaren 8an izango da Emakume Langilearen Eguna. Oraindik ere Gizartean eztabaidagai dagoen kontua da gizon emekumeen arteko berdintasunarena.


Zure ustez berdintasuna lortuta dago ?



Amaia Goenaga
42 urte
Etxekoandria
Nere iritziz, oindio ez da berdintasuna lortu nahiz eta egoeriak hobera egin daben. Lan munduan, gauzia nahiko berdindu da, baina etxietako pisua emakumiek erua-ten jarraitzen dabe.



Xabier Alberdi
33 urte
Teknikua
Parekatu egin da egoeria baina ez da berdina ezta gutxiu be. Oindio dexente falta da. Teorikoki, gauzak asko berdindu dia lehendik hona baina praktikoki ez da berdina gertatzen.



Pedro Hernandez
56 urte
Tornillerua
Leku batzuetan badao berdintasuna baina beste leku batzuetan ez, lanbide batzutarra gizonak heltzen dira eta emakumiak ez eta alderantziz.



Aintzane Exposito
17 urte
Ikaslia
Berdintasunari dagokixonez asko hobetu dala egia da baina lan munduko arlo batzuetan eta etxian ondio be badao aldia.



Benedite Berraondo
84 urte
Jubilatua
Gaur egun leku batzutan berdinduta dao baina beste batzutan ez. Etxietan emakumiak jarraitzen dabe lanian. nere iritziz, aurrera begira gauzak hobera aldutuko dira .



Alberto Galarraga
49 urte
Komertziala
Oindio be diferentzia haundixa dao, bai ofiziuari dagokixonez eta baita jornalari dagokixonez be. Oindiokan emakumiak dira etxeko pisua eramaten dutenak.

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**
MEDIKU ESTOMATOLOGO



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko menua eta pintxoak.

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Askatasun Haizeak plataforma aurkeztu dute

Joan zen ostiralean, otsailaren 21ean, Askatasun Haizeak izenako plataforma aurkeztu zuten Plaza Berrian, 80ren bat soraluzetarrek.

Arduradunen esanetan, plataforma hau, Gernika Deialdiaren ostean sortutako autodeterminazioaren aldeko mugimendu eta dinamikaren barruan kokatu behar da.

Plataforma honen bitartez, ezkertiar eta abertzale sentitzen diren soraluzetarreri, "bilgune zabal bat eskeini nahi zaie, euskal herritarren autodeterminazio eskubidea eta gainontzeko oinarriko eskubideak bete daitezen exijitzeko."

Askatasun Haizeak plataformako bozeramaileek aurkezpen ekitaldian irakurritako idatzian; Gernika Deialdiarekin bat eginez "aro berri bat eraiki"tzeko asmoa azaltzen dute autodeterminazio eskubidearen bitartez "dagoeneko abian dagoen Europako erai-



kuntzan ahotsa edukitzeko, eta herri gisa, arlo guztietan gure garapenaren jabe izateko" nahia azalduz.

Azkenik plataforma honek deialdi bat luzatzen die soraluzetarreri; "Soraluzeko Askatasun Haizeak herri platafor-

ma osatzen dugun guztiok euskal herritarrak gara. Herri zahar baten seme-alabak gara. Eta euskal herritar guztiok batera gure herriarentzako aro berri bat eraikitzen lagundu nahi dugu. Zatoz gurekin. Asko garelako, bil gaitezen!"

Etorkinen topagunea sortzen

Joan zen igande arratsaldean Soraluzeko Parroki Taldeak bultzatuta, batzar berezi bat egin zen Abadetxe azpiko kapillan.

Batzarrean, Caritas eta Etorkin Latinoamerikarren Elkarteko ordezkaria izan ziren, Soraluzeko ekuatoriar komunitateko 30en bat lagun eta Parrokiko Taldeko partaideekin batera.

Batzarraren helburua Soraluzeko ekuatoriar komunitateko kideei "Euskal Herriko bizimodura nola moldatu eta dituzten beharizanak nola ase" ditzaketen jakiteko gomendio batzuk ematea izan da. Hizlariak, lege berriak ekarriko dituen ondorioak azaldu zituzten, paperak erregularitzeko zailtasunak lehen bezain handiak edo handiagoak izango direla aurrikusiz. Soralu-



zuko gizartean integartzeko bidean, euskara ikastea, jai eta ekitaldietan partehartzea eta irekiak izatea bezelako kontuak izan zituzten aipagai. Azkenik, ekuatoriar komuni biltzeko proposamena egin zieten, "inoren zai egon gabe, zuok bildu eta batzen ez bazarete" aurrerapausoak ematea zaila izango dela ohartaraziz.

Beti Presten jaialdia

Bihar larunbata, Beti Prest taldeak ume eta gaztetxoek eskeinitako jolas egiteko jaialditxo bat antolatuko du. Plaza Berrian 12:00etan.

Marrazkiloaren eskola

Zer da oskol gabeko marrazkilo bat?



Martxoaren 15ean 14:00etan, aurkezpena Plaza Barrixan.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Limpiezas Trejo, S.L.

Limpiezas industriales

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Astelehenean Arane Kiroldegia zabalduko da

Eraberritze lanak direla eta bi urte inguru itxita egon eta gero, datorren astelehenean zabalduko da Arane Kiroldegia. Irekiera ekitaldi ofiziala gaur egingo da 22:00etan frontoian antolatutako den pelota jaialdiarekin baina piztina eta frontoia bera astelehenetik aurrera jarriko dira erabilgai jendearendako.

Kiroldegiko arduaradunek jakinarazi dutenez, kiroldegia itxi zenean ordainketa kontu korrante bitartez adostuta zuten eta bazkidezta hori berriztu nahi ez duten bazkideek martxoaren 1 eta 3an izango dute erabaki hau jakinarazteko aukera. Bestalde, bazkidezta egiteko epea martxoaren 1ean zabalduko da eta goizez nahiz arratsaldean izango da horretarako aukera. Urteko bazkidezta kuota honako prezioa izango dute; urte osoko familiaren abonoa



103,75 eurokoa izango da, 16 urtetik gorako banakena 56,75 eurokoa eta 48,79 eurokoa adin txikikoena.

Kiroldegiko eskaintzari dagokionez, haurrentako igeriketa eskolak, 3.

adinekoendako gimnasia saioak, mantentze gimnasia eskolak eta aerobick saioak ere antolatuko dira. Informazio gehiago 943742466 telefonon.

2003ko Aratosteak martxan

Urtero bezala martxoko lehenengo larunbat eta asteartean mozorroz eta festa giroz beteko dira Soralezeko kaleak. Ekitaldi asko izango dira egunotan herrian egingo direnak.

Larunbata 1

12:00etan Beti prest taldeak jokuak antolatu ditu umeendako.

17:30etan Marsel Magoa izango da Kiroldegiko Frontoian Udalaren Kultura Sailaren eskutik.

19:30etan Kalejira (Gaztetxea)

23:00etan Trakets musika taldearekin dantzaldia izango da Plaza Zaharrean.

Asteartea 2

17:00etan 14 urtetik beherako mozorro lehiaketa egingo da Plaza Zaharrean.

19:00etan Musikoplantzarrak izeneko taldeak kalejira egingo du kalerik kale. Ekimen hau Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak eta musikari talde batek prestatu du eta astearte ilunabarra animatu eta kantu giroa berreskuratzea du helburu. Bertso berriez gain, Plazentziako Aratostietako kantu tradizional batzuk ere kaleratuko dituzte.

23:00etan Irailerako 6 taldearen dantzaldia izango da Plaza Zaharrean eta atsedendian (00:00ak aldean) helduendako mozorro lehiaketa egingo da.

Hontaz gainera Udalak tabernen arteko apainketa lehiaketa antolatu du eta epaimahaiak ondoen apainduta dagoela erizten dion taberna 150 euroko dirusaria jasoko du.


Hiru mozio astelehen honetako batzarrean

Astelehen honetan Udaletxean egingo den Batzar Berezian 3 mozio ezberdin izango dituzte aztergai: bata, PSOEek aurkeztutakoa, Udalak Joseba Pagazaortonduren hilketa gaitzesteko eskatzen duena, bigarrena, S.A.k taldeak Irakeko gerraren aurka aurkeztutakoa izango da eta azkenik Soralezeko Euskalgintzak (Pil-pilean, Euskaltegia eta Euskal Herrian Euskarazek) alkatetzari proposatu eta honek batzarrean aurkeztuko duena. Euskalgintzaren mozioak Egunkaria itxi eta Egunkari zuzendaritza atxilotzearen inguruan jazotako gertakizunen inguruan Udalaren atxikimendua eta herri bilkura batera deia egiteko ere eskatzen du.

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Egunkariaren aldeko elkartasun uholdea Euskal Herri osoan

Otsailaren 20an, ostegun goizaldea, Espainiako Audientzia Nazionaleko Juan Del Olmo epailearen aginduz, ETArri dirua zuritzearen akusaziopean Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariako Zuzendaritzako 10 kide atxilotu eta Egunkaria itxi zituen. Argia, Jakin eta Ikastolen Elkarteak ere mihatu zituen eta materiala eraman zuen. Aste-bete honetan, etenik gabekoak izan dira itxiera eta atsiloketa hauen aurkako salaketak, baita Egunkariarekiko elkartasun adierazpenak ere. Egunkariaren itxieraz gain, atxilotuek salatu dituzten tortura eta tratu txarren testigantzek gehiago areagotu egin dute egoeraren larritasuna. Min handia eman die euskaldunei Egunkaria era horretan itxi izanak eta min handiagoa (posible bada) euskal munduan hainbeste lan egin duten eta hain mirestuak diren pertsonak horren krudelki erasotu izanak.

Herriko Euskalgintzak antolatutako ekimenen eskutik, ostegunean bertan hasten dira Sorraluzen Egunkariarekiko elkartasun adierazpenak agertzen. Pil-pilean Euskara Elkarteak, AEKK eta Sorraluzeko Euskal Herrian Eusjarazeb gertatutakoa dalatzen duen idatzi bat adosten dute eta iluntzerako kaleratu. Idatziak larunbateko manifestaziorako dei egiten die sorraluzetar guztiei. Egun horretan bertan, 50en bat pertsona biltzen dira Plaza Berrian egiten den konzentrazioa. Andoinen gizarte erabile eta alderdi politiko askotako ordezkariak elkartzeko dira Kontseiluaren gidaritzapean eta



Donostian mundu bat bildu zen "Egunkaria Aurrera. Bai Euskarari" lemapean.

"atxilotuek salatu dituzten tortura eta tratu txarren testigantzek gehiago areagotu dute egoeraren larritasuna"

gertatuak erantzun "zabala, anitza eta bateratua" behar duela adierazten dute., Gertatu dena sinestezina da; Egunkaria itxi egin dute.

Ostirala 21 "Itxia biana ez ixildua"

Egunero kioskoan. Ez gaituzte ixildu. Goizean, bart Egunkariko langileek agindu bezala, Egunero aurkitzen dugu gainontzeko egunkariaren ondoan. Sorraluzeko kaleak Egunkariaren aldeko karteletz josita agertzen dira, tartean Pil-pilearen ale berezi bat ere bai. Egunkariko langileen eta euskalzaleen pozerako, izugarritzko jende pilak Egunero erosteari ekiten dio. 50.000 Ale saltzen dira.

"Egunkaria aurrera ! Bai Euskarari !" Donostiako manifestazioa



Manolo Galarraga

Ezagutu doten manifestaziñorik haundixena izan da. Egunkarixa itxia ez jata ondo pentzau. Madrildik datozen barrixak ez dauke itxura onik.



Begoña Aboiti

Manifestaziñora gure hizkuntza defenditzera etorri naiz. Euskaldun guztion artian aurrera etara bihar dogu gure hizkuntza. Izugarria izan da.



Aidor Aizpurua

Erasuen aurka, jentiaeren bat egiteko eta egunkarixari bultzada bat emoteko jua naiz. Ikusten da "gobernu demokratikua" zer dan.



**Ubane Madera
Kazetaria**

Kazetari moduan, haserre nago. Pertsona moduan, lotsagarria dela uste dut.

Eta, euskaldun moduan, minduta nago. Denok gara Egunkaria!



**Gurutze Ariznabarreta
Pil-pileaneko kazetaria eta
Egunkariako Kolaboratzailea**

Berrixa entzun ta gero, harriduria, mina eta hasarria, danak elkarren ondotik etorri ziran. Euskal prentsa, adierazpen askatasuna eta euskara erasotu dittue (ez da lehenengo aldia) eta gure moduan euskararen alde lanean diharduten hainbat lagun atxilotu dittue. Gogor jarraitu biharko dogu euskararen aldeko eta egunkariaren aldeko lanian. EGUNKARIA AURRERA. BAI EUSKARARI!!

Soraluzeko Euskalgintzak bi autobus antolatzen ditu eta izena emateko

“izugarrizko jende pilak egunero erosteari ekiten dio. 50.000 Ale saltzen dira”

deia zabaltzen du herrian. Komunikabideek etengabe ematen dute egoeraren berri eta atxilotuak inkomunikatuta jarraitzen dutela jakinarazten da. Autorik ez da ezagutzen.

**Larunbata 22
“Denok Donostiara
Egunkaria aurrera”**

Egunero kioskoan. Larunbatean bi autobus betetzen dira Soraluzetik (110 lagun) eta kabitu ez den jendea kotxetan abiatzen da Donostiaruntz. “Egunkaria Aurrera. Bai Euskarari” lemapean izugarrizko jendetza batzen da Donostian, Euskal Herrian gogoratzen den manifestaziorik handienetako batean. Ostadar eder batek egiten die ongi etorria leku guztietatik etorritako euskaldunei. Alderdi abertzale guztiak eta EB, sindikatuak, kriolariak, kazetariak, kantariak, idazleak; hurrengo eguneko Eguneroko titularrak adierazten du ongien Donostiakoan jaoztakoa. Atxilotuek inkomunikatuta jarraitzen dute, Pello Zubiria eritexean.

“Ez dira hitz politik bakarrik, Egunkariak 2500 harpidedun gehiago lortu ditu bart”


**Igandea 23
“Mundu bat Egunkariaren alde”**

Egunero kioskoan. Mundu bat bildu da Egunkariaren alde, euskaldunek harriarri erantzun dute. Ez dira hitz po-



**Santos Elizburu
“El Correo”ko Kazetaria**

Egin itxi arren, ez neban pentzatzan Egunkaria ixtera helduko ziranik. Mariano Ferrerri entzun notsanian amesetan nenguala uste neban. Euskaldunontzat beharrezkoa da euskarazko Egunkari bat eta beste berri bat egitia lortuko dan itxaropena daukat.



**Nerea Isasti
DVko eta Mendaro Telebistako
kazetaria**

Epaiketarik barik epaittu dittuzte. Adierazpen Askatasuna zalantzan dago. Espainian ez dago botere banaketarik eta botere politikuak beste bixak dominatzen ditu. Elkartasun osua Egunkariako langileei.

litak bakarrik, Egunkariak 2500 harpidedun gehiago lortu ditu bart. Igandean beste 2500 pertsona harpidetzen dira futbol partidu baten sarreran. Atxilotuek inkomunikatuta jarraitzen dute MADrilen, deklaratu gabe oraindik. Pello Zubiria eritexean.

**Astelehena 23 Asteartea 24
“Bidegabekeriak
ez du etenik”**

Egunero kioskoan. Astelehenean atxilotuak deklaritzen hasten dira baina ez zaie inkomunikazio egoerarik kentzen. MADrilen diren senide, lagun eta kazetari euskaldunak mesprezuz tratatzen dituzte. Egunkariako ordezkariak Lehendakariarekin biltzen da. Balorazio positiboa egiten dute bi aldeek. Jaurlaritzak Egunkaria sostengatzeko konpromisua adierazi du. Juan del Olmo epaileak auto judizial bat kaleratzen du,



Soraluzetar asko dira Egunkaria itxi ostean euskarazko egunkaria erosteari ekin diotenak.



Pil-pilean Herri Aldizkariko partaideek Egunkariaren itxiera gaitzetsi dute.

Egunkaria ETaren fronte komunikatiboan kokatzen du. Inputazioak orokorrak dira, duela 10 urteko dokumentu batzuetan oinarritutakoak. Martxelo Otamendi, Inma Gomila, Luis Goiari eta Fermin Lazkanori baldintzapeko askatasuna fidantza truke, besteak baldintzarik gabe espetxeratuta. Pello Zubiria eritxean inkomunikatuta.

Asteazkena 25

“Torturatu egin dituzte”

Egunero kioskoan. Martxelo Otamendi, kartzelatik irten bezain laster torturak salatu ditu. Kontakizuna bel-durgarria izan da “inpunitatezko tunel beltz” batez hitzegiten du, beste atxilotuetako batzuk ere torturatu egin dituz-

te. Pello Zubiriaren egoerarekiko kezka areagotzen da.

Soraluzen konzentrazioa egiten da Udaletxepean Kontseiluak deituta, 70en bat lagun “Egunkaria Aurrera. Atxilotuak Askatu” lemapean.

“elkartasun olatu hau izugarritzko egunkari bat egiteko baliatu behar dugu” M.O.

Osteguna 25

“Testigantza lazarriak”

Egunero kioskoan. Atxilotuentestigantzak izutzeko modukoak idra. Pello Zubiriari “hil nazazue behingoz!” oihu

egiten entzun diote. Martxelo Otamendik “Torturaren aurkako hesi nazional, instituzional eta soziala behar dugu”la esaten du. Soraluzeko Euskalgintzak mozioa aurkezten du Udaletxean Alkatearen bitartez. Mozioa astelehena 19:00etan eztabaidatuko da. Pello Zubiriak deklaratu du eta espetxeratuta egingo dute. Ez sinisteko modukoa da baina egi egia.

“Denok gara Egunkaria!”

Martxelo Otamendik, elkartasun olatu hau “izugarritzko egunkari bat egiteko” baliatu behar dela aipatu du. Egunkariak harpidetza egiteko iragarkia jarri du Pil-pilean, hortxe dago etorkizuneko gako nagusia, herritarren babesean. Egunerok 50.000 aleko tiradarekin jarraitzen du. Soraluzen ere hamar aldiz bikoiztu dira salmentak. Soraluzeko Euskalgintzak, Egunkariako langileek proposatu bezala, Egunkariari laguntzeko herri batzorde bat sortzeko asmoa gauzatuko du denbora laburrean, batzorde honetan parte hartu, mobilizatu, Egunero erosten jarraitzeko eta Egunkariako harpidedun eguteko deia luzatzen die Soraluzetar guztiei. Etorkizuna geure eskuetan dago eta diogun beste desio badugu, izugarritzko Egunkari bat egitea lortuko dugu, euskarazkoa eta euskaldunona!

“Denok gara Egunkaria!” izenburuztat duela kaleratu da Pil-pilean 64. Alea.

Alea iacta est.

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Belarrak

Loradenda eta Belardenda

Erosketak etxera daramatzagu

Telef. 943753011
Mugik. 646439040
Gila Zubian Soraluze

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

ELIZPE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Maite Larrañaga

“Oreka bat bihar da arduretan emakumiok etxetik kanpo be bizi ahal izateko”

Martxoaren 8an Emakume Langilearen eguna izango da. Aukera berdintasunaren gaiaren arira, Soraluzeke Emakume Taldea zenaren partaide izan zen Maite Larrañagarengana jo dugu. Emakume taldea zergatik sortu zen, zer egin zuen eta zergatik desagertu zen kontatu digu eta honekin batera gaur egungo errealitatea gaia zela ikusten duen ere azaldu digu.

Zela sortu zan emakume taldia?

1992 Urte inguruan pertsona batek bi bilera deitu zittuan emakumeen elkartea bat sortzeko asmuarekin. Helburu ezberdinak geneuzkan emakume asko bildu ginan eta eztabaidatu ostian, berdintasuna bultzatzeko talde bat osatzia erabaki zan, 8-9 emakumek osatzen genduan.

Zer egiten zenduten?

Beti martxoaren 8xaren inguruan antolatzen genduan hamabostaldi moduko bat; emakume artisauen erakusketak, argazki lehiaketak, zine emanaldiak, emakumezko bertsolarien jaialdi bat... Urtian zihar be ikastaruak antolatzen genduzen emakumien arazuen inguruan, seksualitatea, autoestima, menopausia... moduko gaixak lantzeko. Jai-xetan be ikutu bat jartziarren Maixa eta Ixiar ekarri genduzen behin.

Ze arrazoirengaitik laga zotsazuen?

Oindala bost urte inguru laga genduan. Azkenian lau edo bost pertsona genden, nekatuta eta ez genduan ikusten erreleborik. Dirulaguntzendako paper pila bat egin bihar zan eta pentsatu genduan heldu zala gai hau erakundiak lantzeko ordua.



Maite Larrañaga

“mugimendua berriz hazten daguala uste dot. Ez dira lehenago moduan emakume asanbleak eta estilo ezberdinetako taldiak dira.”

Gaur egun zela ikusten dozu mugimendua?

Euskal Herri mailan, barealdi baten ostian mugimendua berriz hazten daguala uste dot. Ez dira lehenago moduan emakume asanbleak eta estilo ezberdinetako taldiak dira. Gainera eremu ezberdinetan sortu dira; eskoletan, lantokixetan... Herri mailan nik ezagutzen dotenez gauza gutxi dago; Udaletxian Ongizate Zerbitzutik bakarrik lan egiten da eta berdintasuna bultzatzeko ekimenak oso gutxi dira herrixan, Gaztetxian

zerbait.

Berdintasunaren bidea zela dago?

Aurrerapauso batzuk emoten dihardugu. Emakumeak gure eremutik urten dogu baina oindio batez be politika eta ekonomia munduan ez dogu gure lekuri lortu. Oso zaila da berdintasuna lortzea, emakumiak oindio etxeko ardura gehixena eruatzen jarraitzen dogulako. Hor oreka bat bihar da emakumeok be etxetik kanpo lan eta bizi ahal izateko. Horretarako oso garrantzitsua da gizonezko askoren jarrera aldaketa. Askok oindio ez dabe asumitzen etxian dauken arduria. Emakumien egunak oindio zentzua dauka eta errebindikaziño egun bat izan bihar dau; tratu txarren kontra, laneko bazterketaren aurka eta beste hainbat gai garrantzitsu normalizatu arte aurrera jarraitu bihar dogu. Eskubide berdintasuna bihar dogu danondako, danon onerako.

Telefona 75 24 09

ARRANO tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Pelota

Pelota jaialdia Kiroldegian

Gaur, Arane Kiroldegiko Udal Pelotalekuaren irekiera dela eta, Udalak eta Pelota taldeak elkarlanean antolatutako pelota jaialdia egingo da kiroldegian. Jaialdia gaueko 22:00etan hasiko da eta honako lau bikoteak daude iragarrita:

**Ubera II - Jauregi
Txurruka - Arrieta**

**Etxaniz - Laskurain
Gonzalez - Rai**

Aspaldiko partez pelota jaialdi eder bat ikusteko aukera izango da.

Futbola

Errealzaleen peña eratu da herrian

Joan den otsailaren 13-an Txoko kafetegian Soralezeko errealzaleen peña aurkeztu zen. Denera 160 bat zalek eman dute izena eta zuzendaritza batzordekoak oso pozik azaldu dira. Bazkide bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu izen ematean eta ordainketa Txoko kafetegian edo banketxeetan egin daiteke.

Zuzendaritza batzordea:

Iñaki Alzola. Lehendakaria.

Enrique Usandizaga. Lehendakari orde.

José Tardío. Idazkari.

Luki Hontangas. Diruzain.

Iokin Zabala. Bokala.

Ernesto Oregi. Bokala.

Iñigo Eguren. Bokala.

José Ramón Casado. Bokala.

Ea sortu berri den talde berri honek ondo ekiten dion lanari eta dena ondo irtetzen den, animo haserako lana pisutsuena izaten da eta.

Kadetea sendo kopako txapelketan

REGIONALA

SORA 2 – Lengokoak 3

A. Ondarroa 0 – SORA 4

KADETEA

Arrasate 1 – SORA 2

SORA 3 – Almen 1

Kadetea kopa txapelketako lehen postuan aurkitzen da. Hiru partidutatik hiru irabazi ditu eta bukaerako fasarako sailkatzeko aukerak oso handiak dira.

JUBENILA

SORA 4 – Lengokoak 3

Oiartzun 6 – SORA 0

Pala Txapelketa

Emakumezkoen Pala txapelketa antolatzeke asmotan dabilen taldeak, txapelketan parte hartu nahi dutenei dei egiten diete, martxoaren 5ean 20:00etan Gaztetxean egingo den batzarera azaltzeko. Batzar honetan txapelketaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Atletismoa

Azkona Espainiako txapeldun

Oviedo-n jokaturako Espainiako txapelketan Arrate Azkonak garaipena lortu zuen jauzia hirukoitzean. Arratek bere marka pertsonala hobetzea lortu zuen 12, 73 zm salto eginda. Jau-

zi honekin Espainiako errekorretik 20 zm-ra geratu da. Orain Arratek aste bukaera hontan Valentzian egingo den Espainiako txapelketa absolutuan hartuko du parte. Animo Arrate !

Garazi Arizaga pistara

Garazik 12 urte ditu, hainbat kirol gustatzen zaizkio baina buru belarri dihardu atletismoan. Garazik hiru urte daramatza kirol honetan, lehen pausak Soralezeko Atxa Memorialean eman zituen eta kirol hontarako dohai onak zituela ikusita Eibar-ko atletismo taldearekin hasi zen entrenatzen.

-Ze taldetan entrenatzen dozu eta zelakuak izaten dira entrenamenduak?

Soraluzen atletismo talderik ez duguenez Eibar-en entrenatzen dot, Unben. Eibarren entrenatzailiakin ibiltzen naiz astelehen eta asteazkenetan eta gero nere kontura Soraluzen beste bi entrenamendu egiten ditut ostegun eta igandietan. Entrenamenduak gogorak izaten dia eta eskerrak entrenatzaileak derrigortzen dostan bestela ni nahiko nagixa naiz.

-Zeintzuk izan dira momenturik onenak ?

Momenturik onenak karrera bat irabazten dotenian izaten dia baina nahiz eta ez irabazi gustora ibiltzen naiz. Aurten Eibar-ko Bolunburu krossa irabazi dot eta Elgoibar-ko Mugerza krossean 2 ein dot. Atxa memorialean ere oso gustora ibiltzen naiz herrixan korrika eitxiak ilusioa egiten dosta

eta. Gainera opari asko irabazten ditut.

-Hemendik denboraldi amaiera ze asmo daukazu?

Kross denboraldixa amaittu da eta oin pistan hartuko dot parte luzerazko karreretan eta luzerako jauzian.



-Bueno Garazi, atletismuaz gainbeste zeozer egiteko denborarik badaukazu?

Bai aerobic-a eta eskixa be egiten ditut eta gainera musika eskolan ze har-txirula jotzen dot. Denerako denboria ateratzen dot.

-Zorte on Garazi !

- Eskerrikasko.

Jon Gabarri

“Zapatuan indioz ta martitzenian rokeroz disfrazau bihar naiz”

Kalian mutiko baten bila genbizela hara nun topau dogun Jon irribarrez, galdereri erantzuteko prest. Grabagailua aurrian jarritta ez jaku bape kikildu ta trankil trankil erantzun dotse gure galdera daneri. Kontuz ibiltzia daukiela bakero guztiek zapatuan, Jon Gabarri indiarra danon adatsak mozteko prest dator ta!

Izen abizenak, edadia ta kurtsua.

Jon Gabarri naiz, 10 urte dittut ta 5.mailan nabil.

Zelan doiaz ikasketak?

Bueno... ondo. Baina ikasgai batzutan ez naiz hain ona.

Zeintzuk dira gehixen ta gutxien gustatzen jatzuzen ikasgaixak?

Gehixen euskera ta gutxien ingurune, asko eukitzen dogu ta ikasteko.

Zer da eittia gehixen gustatzen jatzuna?

Mendirra juatia ta jolastia asko gustatzen jataz.

Ta zein da ba gustoko dozun jokuren bat?

Ezkutaketan ibiltzia.

Bapo geratzeko moduko bazkarixa.

Espagetixak, okelia ta postrian yogurta

Zer ezin dozu jasan.

Nere anaiak neu jotzia, baina gero nik be bera jotzen dot. Azkenian gurasuek bronkia botatzen dozkue bixori burruketan ibiltziarren.

Aratuztietan sartu garala, zertaz mozorrotu bihar zara?

Zapatuan indioz ta martitzenian rokeroz disfrazau bihar naiz

Zer nahiko zenduke izatia nagusitzian?

Aitakin diskuak saltzen ibiltzia gustauko jatan

Errealzalia zarala be enterau gara ta, ze jokalaria da onena?

Valeri Karpin. Gainera aurten seguru Ligia irabazten dogula.

Aste Santuak gertu darella, nora juanteko asmua daukazu?



Bertso Begiz

*Jon Gabarri elkarrizketa
bere onen onenean,
Gaztelupetxok ezin bestela,
musika du barrenean.
Zintzo itxurakoa,
pikaro halakoa!
eta etorkizunean,
indio edarra haziko da hau
aitaren aldamenean.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Jon Gabarri

Benidormera noia, plaian ibiltzera.

Amaitzeko, kontauko al dotsezu txis-teren bat Pil-Pileaneko irakurlieri?

Esaten dotsa gizon batek tabernari bateri: “Atara eidazu arda bat!”

Tabernarixak zurixa edo beltza nahi

daben galdetzen dotsanian erantzuten dotsa gizonak “Berdin da, itsuandako da ta.”

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Argazki zaharra


1921eko Plazentziako Aratustiak

1921eko gerrareko ihauteri garaian argazki honetan, Eusebio Aldazabal "Perequillua" (Txarlotez mozorrotuta) eta Tomas Placencia azaltzen dira. Ramiro Larrañagaren liburuan jasotzen denez, 1936-39 urteetararte baimenduta egon ziran Aratustiak. Gero urte askoan debkatuta egon ziran. Garai hartan dantzaldixak antolatu eta herriko kalietan gazte kuadrilak preparatutako gurdixak ibiltzen ei ziran. Oindio be izango da Aratustietan kantatzen ziran bertsuekin akordatzen danik:

**"Beti asarre dago gure neska zarra,
goizian goizetikan jaten du piparra,
ezin degu sufritu hain genio txarra"**

Beste kantu batzuk be badira, Eustaki Maiztegi musikoak jasotakoak eta Andres Ezenarro "Urzelai" k idatzitakoak be bai.

Karmen Placencia



Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Maite Elizburu
Erantzuna: Agirrebeiztegi



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze




Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teleline.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa



Ugaraxo



2.003ko otsailaren 14. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Bigarren mailakook birziklatzen dugu eta zuk?

Aspaldi honetan birziklatzearen gaiarekin ibili gara eta oso interesgarria izan da. Beste gauza batzuen artean pertsona bakoitzak egunean kilo bat zabor sortzen dugula ikusi dugu, horregatik zaborra herri guztietako arazo handi bat dela konturatu gara eta birziklatzea behar-beharrezkoa.

Hau dela eta egun batean kalera irten ginen gaia hobeto aztertzeko eta herriko edukiontziak (kontenedoreak) eta zakarrontziak zenbatzeko. Lehendabizi Kalonjetik Zeletara eta Estaziora joan ginen gero Loralde, Ezosi Bidea eta Gabolatzetik Plaza Zaharreraino heldu ginen, ondoren Plaza Berritik Zubira eta bukatzeko Santa Ana kaletik Giza Eskubideen enparantzara, frontoietara eta Eliz atarira joan ginen.

Konturatu ginen herriaren erdi aldean, jende gehien ibiltzen diren tokiak izanik, oso zakarrontzi gutxi daudela, Plaza Zaharrean adibidez 2 besterik ez daude, Plaza Berrian 1 bakarrik eta Giza Eskubideen enparantzan, edo guk esaten diogun bezala frontoi arrosan, bat



Birziklatzea abantaila denontzat!!

bera ere ez. Eta kaleak garbiak edukitzea nahi baldin baditugu toki hauetan zakarrontzi gehiago behar ditugula ikusi genuen. Goiko frontoian 2 zakarrontzi nahiko berriak daude baina jadanik apurtuta daude biak eta apurtzen dituztenei eskatuko genien, mesedez berriak ipintzen direnean ez apurtzeko berriro, bestela ez daukagu nora bota gure zaborra.

Edukiontzien aldetik horiak (plastikoak, latak,...) leku batzuetan gainezka egiten dute, beraz gehiago ipini edo zarriago hustutzea komeni da. Gai honetan ikasi dugunez pilak oso kutsakorrek dira eta irten ginenean ibilbide osoan edukiontzi bat bakarrik ikusi genuen.

Hiru Txerrikumeak



Behin batean, hiru txerrikumeak mundua ezagutzera irten ziren. Txerri zaharrenak lastozko etxea egin zuen.

Txerri gazteenak harrizko etxea egin zuen. Otsoa etorri zen eta otsoak putz egin eta lastozko etxea bota zuen. Gero,

berriz egin zuen putz eta egurrezko etxea bota zuen. Ondoren, adreiluzko etxera joan zen putz egin zuen baina ez zuen apartu.

Otsoa tximinitik sartu zen baina hiru txerrikumeak lapiko bat jarri zuten eta otso gaiztoa bertara erori zen.



Kiroldegixa zabaldu bihar dabe. Eta ?

ANE OSORO

11 urte

Kanpoko piszina batzuk egitia ez legoke gaizki. Futbolian jolasteko ganorazko toki bat be bihar da. Momentu honetan kutre xamarra dao.



LAURA LUIS

11 urte

Zinia zabaltzia eskatuko neuke, pelikulak ikusteko aukeria egoteko. Liburutegixa be oso txikixa da eta ez dago danondako lekurik.

GAIZTO AZKARATE

12 urte

Kabina bat jarri bihar leukie gure partiduak grabatzeko. Begirale guapa batzuk eta hondartza artifizial bat jarri bihar litzake.



JOSU ARRIOLA

12 urte

Igeriketako klub bat egin bihar leukie. Ni igerilari bikaina naiz eta klub baten izena emotia nahi dot.

Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan gizona? ?

Zein dan baldin badakizu,

DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **denborapasako aldizkari edar bat** irabazi ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak: Alana Berraondo eta Mireia Lamariano

Erantzuna: Marije

Saria IRATXO Goxodendan eskatu

Esaxozu... (amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Nere gelako lagun danak asko maite dittut (Uxue). Aznar tontua da "Don bigote que recoja el chapapote" (Amezua, Andoni G., Gorka, Unai, Arnaitz). Markel eta Ander onenak dira. Gora erreaala eta atletika munduko



talderik onenak dira eta. Andereño eta maisu guztieri muxu haundi bana eta ia azterketetan nota hobiak ipintzen doskuezen (O. Ariznabarreta, I. Benito eta beste batzuk.)

Birziklapena

Nahi duzu gurekin jolastea?

NORA BOTAKO ZENUKE?
Edukiontzien barruan marraztu edo idatzi ondorengo zerrenda:

Freskagarriaren lata (l), patata frijituen poltsa (p), plastikozko ur botilatxoak (b), txikleak (tx), orri bat (o), hosto bat (h), zilarrezko papera (z), pipen poltsa (p), kartoia (k), laranja azala (la), beirazko botilak (b), kartoizko karpeta (k), plastikozko karpeta (pk), sagarraren mutxikina (sm), liburu zahar bat (li), forroak (fo), arkatz txikiak (at),...



Koplak Egunkariari



Euskarazko Egunkariaren itxiera dala eta, Xingolarekin oroituz gure desadostasuna adierazteko, koplak batzuk asmatu dittugu bertso eskolan:

Doinua: Orbelak airez aire.

Egunkaria itxi,
hau da berri txarra, (bis)
horrek eragin digu
guztioi negarra. (Bis)

Egunkariarekin
Xingola zetorren, (bis)
gu gogoratzen gara
berriekin arren. (Bis)

Gogoia dugu berri
ere ikusteko, (bis)
guztia irakurri
eta jolasteko. (Bis)

Sagardotegira irteera



Urdaira Sagardotegian Afaria
Martxoaren 7an

Menua Autobusa 29 Euro
(ikasle, langabetu eta bazkideentzat 26 euro)
Izena emateko: Gaztelupe, Gila edo Arranoan.
Irteera: Arratsaldeko 20:15etan.

Antolatzailea



Babeslea



Sukaldaritza ikastaroa

NOIZ? Martxoaren 10etik
Apirilak 2 rarte.
Astelehen eta asteazkenetan
19:00etatik 21:00etara.
NON? Mahastia elkarteak.

IZEN EMATEA: Deitu telefono
honetara: 943 75 13 04
(Izen abizenak eta telefonoa
emateko. Martxoak 3rarte).



- Ikasle, langabetu, jubilatutako eta bazkideentzat 5 euro.
- Gainontzekoentzat 10 euro.

Antolatzailea



Babeslea



Ordainketa kontu hauetan egin dezakezu:
Kutxa: 2101 0062 13 0123185746.
Euskadiko Kutxa: 3035 0004 9 0 004.0.01555.0

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu

943 30 35 55

943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero



Urdaira Sagadotegia

Zatuz eta egin txotx!



Urdaira Baseria / Aginaga Auzoa / Usurbil

Telef.: 943372691 (Patxi Azkonobieta)

Urtarrilaren 17tik maiatza arte.